

## **HERRI-NARRATIBAREN EREMUA**

*Donostia, 1991-III-25*

*Jose M. Satrustegi*

Herri-literaturari buruzko II. Jardunaldiak hasten ditu gaur Euskaltzaindiak herri-narratiba aztergai duela beste behin kontapoesiarekin egin zuen bezala, geure herri-jakintzaren alor aberatsa hobeki ezagutu eta lantzeko asmoz.

Literatura, berez, edozein herritako hizkuntza idatziaren bilduma orokorra dela esan daiteke. Txukuntasuna kontutan hartuz, hizkuntza landuaren mailan hitza bera eta bere erabilpena apaingai ikusten duen idazlearen lanari ere literatura esaten zaio.

Euskararen inguruan herri-literatura beste zerbait da; ahozko tradizioetik jasotako kondakizun, olerki, esames eta ipui guzien altxor aberatsa, alegia. Horrek ez du esan nahi horrelako bilduma batek azken mailako balio eta garrantzia duenik, edo sasi-literatura denik. Idazteko tradizioz ez duten herri zaharrek buruz eta oroimenez jasotako ondarea utzi dute, beste edozein bezain jakingarria, eta ahozko errepikapenez gorpuztua.

Sutondoko txoko epelean mamitu zen ipui ernagarrien xarmaz haurren mintzaira. Esatari hoberenen ereduaz eta bertsolarien sagardotegitako eskolan aberastu zen entzunleen belarria, eta izen gabeko olerkari askoren balada, erromantze, maitelero eta abesti ederrekin iritsi zuen euskarak herri-literaturaren gailurra. Idatzia ala ez, herri zahar baten jakintza da eta aztartzea merezi du.

### **Helburua**

Jardunaldi hauetan egin nahi den lana oinarritzkoa da herri-narratibaren eremua, hots, mugak, ikuspegi zabalez finkatu eta narratibaren adar desberdinen sailkapen zehatza egitea, atal bakoitzaren ezaugarri bereziak ahal bezain argi emanaz. Horren arabera, oraingoz, etxe eraiketa eta horniketa ez baino, lehen materialen hautapena eta ikerlanen bideratzea egin nahi da geroari begira.

Saio hauen garrantzi nagusia Euskal Herrian ere herri-jakintzari Unibertsitateko atea ireki izana da, munduan zehar aspaldi egin ohi denaren arabera. EUTGren harrera ireki eta baliotsuari esker, arbasoengandik hartutako ondare oparoari zor zitzaion ohorezko aitormena egiten zaio.

Euskaltzaindiko Herri-literatura batzordearen esker ona, beraz, Donostiako EUTGri, eta Jardunaldi hauetako partaideak goi mailako emaitzekin ahaleginduko gara Jakintzaren santutegia dagokion tokian uzten.

### Herri-narratiba

Gure ikastaroetako prozedura zaharrari jarraituz, *status quaestionis* delako aztergaien balorapenarekin hasiko dut txostena. Zer adierazi nahi da herri-narratiba esatean hemen?

Narratiba, berez, kondakizunaren pareko hitza da. Gauzen, ekintzen, ametsen edo sendipenen azalpena. Literaturari dagokion neurrian, prosaz egindako edozein deskribapen izan daiteke; ala hizkuntza landuen esparruan idazkeraren duintasuna gogoan dela arau berezi batzuen inguruan idatzitako lana. Luzea ala laburra izan daiteke eta idazlearen trebetasuna nabarmentzen da.

Herri-narratiban ez dago idazle jakinik, esateriak baizik. Emaitza, beraz, ez dago inoiz eredu bakarrari loturik eta aldakorra izan ohi da. Aitorpena izan daiteke janzkeraz ahula eta edukinaz garrantzitsua; eta alderantziz, funts gutxiko mezua emankizun txukuna bihur daiteke hitz-tun onaren ezpainetan. Kontutan hartzeko adierazpena da hau etnografia lanetan, izan ere, lekuko askoren esanekin osatu ohi da gehienetan egoera baten ikuspegia edo mezuaren edukina.

Literaturaren ikuspegia ez da noski etnografiarena eta herri-narratibaren ingurumen ertzak finkatzerakoan sortzen zaigun lehen kezka hau da: mintzairaren janzkera ala mezu zatikatuen edukin sakona da garrantzitsuena tradizio zaharren berreskuratzean?

Arazo korapilatsua da benetan. Herri-narratiban oso pozgarria izan ohi da mito zaharren aurkipena, baina zoritxarrez gutxitan datorkigu horrelako emaitza bat bere osotasunean borobildurik. Batzuetan, hitz soil edo esames ihartutan egon ohi da adierazpen miresgarri baten soka muturra.

Hori hala izanik, ez zegoen ikerlarientzat aukera gehiegirik. Bilketa-lana zen lehen helburua eta ahal bezainbat datu jasotzeari ekin zaio ia orain arte.

Hau zen mende honen hasierako maisu nagusien aholkua. M. Speranski errusiarrak, honela zioen 1917an: "Agertutako ondorioetan gelditu

gabe, etnografiak bere ikerketetan jarraitzen du, bildutako materialea eraiketa orokor bat egiteko oraindik aski ez delakoan. Horrela, bilketa-lanera itzuli da berriro zientzia eta berauen tratamendura, geroko gizaldien mesedetan lan eginez. Bainan ikasketa orokorrak gero nola izango diren eta noiz egongo garen egiteko moduan, horretaz ezer ez dakigu”<sup>1</sup>.

Bide beretik ibilia da, noski, Euskal Herriko jakintza tradiziozkoaren gurdia, Azkue, Barandiaran eta aita Donostia, ospetsuak lekuko, besteak beste.

Nahita-ezpadako bilduma horien antzekotan oinarritzen da orain gure herri-jakintzaren azterketa eta urtegi horretatik isuritako xirripa da herri-literaturaren narratiba delakoa, hots, *euskaldun zaharrengan mendez-mende hitzez mamitu eta orain izkribuz jasotako lekukoen kondakizunak*.

Bizia bera eta herriaren oroimena bezain zabala da bere eremua, eta benetan oparoa eskuratutako gaien kopurua. Lehen eginkizuna buruturik biltzaileen isileko lan erraldoiari esker, sintesi edo laburpenez edukin orokorren emaitza berriak jasotzen hasteko garaia da. Gari bihia ere ez da mandiotan zokoraturik egonez ogi bihurtzen.

Ez gara lehenak horretan ere. Europako ateak irekitzen ari diren unean kultura zaharren konparaketako bideak urratuak zirela ikusi daiteke, euskaldunon altxorra ezagugaitza delarik aldamenentzat ere.

## Sailkapena

Herri baten jakintza ez da bakarrik mintzaira eta literatura. Bada gizonak berak sortutako tresna eta lanabesen ekintza bat, hala nola erligioak piztutako kezka eta festari darion dantza. Ontziak eta etxea jan-edanak eta jantziak, abereak eta lurra, ostatua eta eliza, dena da herri baten kultura etnografiaren eremu berezian.

Materiale horien deskribapena eta ohituren azalpena, hitzez eginik ala izkribuz, herri-literatura bihurtzen da eta, batzutan, ipui, mito eta esames politetz jantzia.

Alde batera utziz neurtitzen baratzeko balada, erromantze, maitelelo, kontapoesia, bertso papera eta bertsolaritza, prosa edo hitzlauz jasotako gaien sailkatzea da lehenik egin beharreko lana herrinarratibak zenbat atal dituen jakiteko.

Eguneroko bizitzan gertuen dauden urratsetatik hurbilduko gara aspaldikoetara, ezagunetik izkutueta.

(1) M. SPERANSKI, *La literatura rusa*, Moscú, 1917, p. 400. in *Morfología del cuento* Vladimir Propp. (Traducción castellana, Madrid, 971, p. 15).

*Gertakizuna.* Norberak bizi duen inguruan sumatutako gauzen kontra eta esatariak bere esperientzia bezala emana. Hurbilekoen jarraipena ere bertan kokatzen da, hala nola aita-amen gertaerak eta pertsona ezagunen lekukotasunez baieztuak. Lehen iturriko berriak alegia.

*Kondaira.* Gertatutzat eman arren inolako frogarik ez duten pasai-zoak. Pertsona buruz ala gauzei buruz emandako berriak izan daitezke eta zehatz-mehatz horrela ez izanik ere kondatzen duenak gertatutzat daukan informazioa da.

*Historio-mistorio.* Asmaketa hutsa izan gabe errealitate aldetik asko aldentutako eranskinak dituen gorai-pamena. Ahoz-ahoz gehitutako ekin-tzen itzal handia.

Azken batean, norbaiten aitortza sinestezina dela adierazteko erabil-tzen da, “nora zoaz historio horrekin?” esaten bezala.

Herriek elkarren artean izaten dituzten esamesak ere hemen sartzen dira.

Nere aitak kondatzen zuen honako hau:

“Arbizuarra juan omen zen Arakilgo etxalde haundi batera mutil serbitzera. Denbora gutxi egiten omen zuten mutilak etxe hartan eta arbizuarrak apustua egina zuen baietz urtea bete.

Ahal zuen guzia eginagatik ez zion (morroiak) gustorik egi-ten nagusiari eta, azkenean, haserretu ziren biak.

Etxekoandreak egiten dio mutilari:

— Jakin behar duzu nagusiak nahi duena egiten duela.

Handik egun batzutara, zalke eultziko<sup>2</sup> egunean aurretik baizoien zakuarekin mutila eskalaretan eta atzetik nagusia, lasa-tzen du harek zakua, eta nagusiak irristatuta lepoa hautsi.

Hasten da orduan oihuka etxekoandrea,

— Hator, hator lasterka nagusiak lepoa hautsi dik eta!!!

Eta mutilak hitzetik-hortzera:

— *Nagusiak nahi duena egiten du, etxekoandre”.*

*Alegia* edo fabula. Bereziki animalien bidez aholku zuhurrak emateko ipuia. Esan behar da, halere, alegietako pertsonaiak ez direla beti abereak izaten. Hona hemen Luzaiden ikasi nuen alegia:

(2) *Zalke.* Veza, arbeja. “Zalke eultziko eguna”, día de la parva de la veza.

“Suia, ura eta konfiantxa desertuan elgarrekin omen zoatzin behin batez.

– Sekula galtzen bagituk nola harrapatuko gitie? –jin omen zitzaien burura.

Suiak: –Ni naizen lekian hautsa uzten diat, erran zuen.

Urak: –Nik enekin diat ihia.

Konfiantxak: –Xantza duzie! Ni galtzen banuk enik gehio nehork harrapatuko.

Eta gizonak gero eni begira, hau erran zuen:

–Konfiantxa behin baizik ez da galtzen” (J.B. Mosho).

“Leyenda” esateko ez dut hitzik aurkitu. *Elezahar* behar bada. Urdiainen jentilen sineste zaharrak badira, baina ez dakit eurentzat ipuiak ala beste zerbait diren. “Iturrizarra” jentilek egina dela esaten dute. Harri landu zabalak ditu horman. Haundiena lurrean egoten zen txorroharri luze bat bezala goiko urak hartzeko. Jentilen alabak ekarri omen zuen besapean Sarabetik. Bide erdian bere aitari itxaran egitea eskatu omen zion.

– Zer da itxâna egitea? galdetu zion aitak.

– Eztakizu? erantzun zion alabak; harria lurrean utzi eta lasaitzea.

– Hori jakin banau bi harri ekarriko nituen batean.

Ipui miresgarri itxura dute baina, denbora berean, jentilak hezur eta mamizko pertsonaiak ziren eurentzat.

*Ohitura zaharra (tradición)*. Zenbait ekintza eta gertakizuni buruz ahoz-ahozko esamesetan eman izan den azalpena. Beste batzuetan ohiturak ez du azalpenik, eta aipatu ohi den arrazoi bakarra, hau da: “Aurrekoek egiten zutelako”. Sineste zaharren kutsuko gauzak izan daitezke.

*Atsotitza* edo errefraua. Bere laburrean jardun luze antzuek ez duten edukin esanguratsua darama ia beti, eta herri narratibari dagokionez adierazpen bizi eta argiak sortu ohi ditu askotan entzunle ezjakinentzat.

Gaurko emakumearen minberatasunarentzat gogokoa izan ez arren, *gizona gizon saskitik ere*, esaten zuen euskaldunak, eta esaldiaren mezua jakin nahi duenarentzat, hona hitzez-hitz Luzaiden jasotako zirtada:

“Emazte batek saski baten barnian erematen zuen bere senarra erre kara. Txakurra ateratzen zako bidera,

– Hail hortik etxera! –egiten dako emazteak.

Baina txakurrak etzakon kasuik egiten. Orduan senarrak agintzen dako saskiaren barnetik, eta txakurrak obeditu.

— *Gizona gizon saskitik e(re)!* erran zuen emazteak eta han berean laxatu senarra” (J.B. Mosho).

*Esamesa.* Arinkeriaz eta kalte egiteagatik asmatutako berriketa.

*Ipuia* edo *ipuina.* Hezibiderako eta jolasteko kondakizun erakargarria.

*Mitoa.* Jainko eta Jainkosen berriak, munduaren sorketa eta gizonaren kezka sakonei erantzuteko bideak antzinatean landu zituen gizaikuspegi miresgarria.

Atal batzuen eta besteen arteko mugak non dauden ez da beti erraz agertzen, baina herri-narratiban eman daitezkeen joera nagusiak eredu hauetara hurbil daitezke.

## Ipuin mundua

Hitzaldi baten epe mugatuan ezinezkoa da aipatutako atal guziak banan-banan aztertzea eta, ikuspegi orokorretik aldenduz, euskal ipuien esparru ernagarrian sartuko gara. Altxor aberatsa bezain nahasia da herri-literaturaren ondare emankor hau. Ipuien azterketa ez da batere erraza eta metodologia gaurkotuaren bidez egin behar da noski. Sailkapen zehatza egitea da ikerlanaren lehen urratsa, horren baitan baitago ondorengo lanen emaitza.

Ohizko banaketa hirukoitza zen orain arte: ipui miresgarriak, ohiturei buruzkoak eta animalienak. Neuk ere, gutxi gora-behera eredu horri jarraituz, *Ipui miresgarriak*, *Axelko eta otsoko* deitu nituen aspaldi argitaratutako bi ipui bilduma, nahiz hirugarrena Nafarroako *Mattin Mottela* pertsonaren inguruan entzundakoekin burutua den, ez zuzenean ohiturekin.

Sailkapen hori oso zabaldurik egon arren ez da inola ere egokiena. Ekintza bera eman daiteke pertsona, animalia eta gauzen ipuietan, eta Vladimir Propp maisuak bere egunean adierazi zuen bezala, abereen ipuietan badira miresgarriak ere <sup>3</sup>.

Beste balorapen bat egitera behartzen gaitu horrek, eta ipuiaren ardatza edo berezko funtsa garrantzitsuago dela azaleko pertsonaia baino, konturatzen gara orduan. Hasteko, egitura oso berezia duten ipui miresgarriak ezar ditzakegu, alde batetik, eta ipui normalak bestetik.

---

(3) VLADIMIR PROPP, *Morfología del cuento*. Edit. Fundamentos, Madrid, 1971, p. 135. Apéndice I.

Lehen multzoaren izenari dagokionez, “Ipui harrigarriak” izenburua gero eta zabalduago dago azken urteotan eta ez du inola ere edukinaren itxura ematen. Harritik dator harrigarria, eta harriduraren antzera, ikara handiko zerbait esan nahi du. Izialduraren pareko eragina alegia. Miresgarria, alderantziz, beldurrik gabeko gauza xarmadunari esaten zaio eta antza ederreko edukin semantikoa du. Herriak ongi bereizten ditu bi hitzak eta baditu era bietako ipuiak. Adibidez, “Lakuntzako barregarria” izeneko pasaia honela jaso nuen Urdiainen:

“Lakuntzako gizon batek *harrigarri* bat egin nahi zuen eta basta batekin igo zen teilatura. Korpuskristiko prozesioa pasatzean bota nahi zuen kalera, baina lokarritan hankak nahastu eta bera etorri zan goiti-behera.

Han zapartatu zen gizona.

“Harrigarria in-berrien, barregarria egin zuen”. (Lukas Zufiaurrek kondatua)

Bilketa lanetan lehen araua berri-emailearen burubidea jasotzen ahalgintzea da, esanahiaz jabetzeko hurbilketa bat egitea. Ezinbestekoa da fidagarritasuna lortzea ondorengo ikerketak fidagarriak izango badira.

Ipuiak ez dira gertakizun sailean ala asmakizunetan sartzen ikerleak horrela uste duelako, emaileak esanagatik baizik. Honen iritzia jaso behar da, ez itaunlariaren jakintza edo maisukeria.

Bilketako bigarren araua jasotakoaren itxura ez aldatzea da. Pertsonaia bakoitzak badu bere nortasuna eta antzeko pasaizo guziak berari itsasten zaizkio.

Ezagunak dira Peru eta Maria bikotearen gora-beherak. Peru gizajoa, buru gutxiko zuntzuna, Mariak txakur txiki bat bezala ibiltzen du munduaren barregarri. Agindutako guziak alderantziz egitea da ipuiaren ardatza.

Beste muturrean dago hitz ederren bidez legegizonei ere iruzur egiten dien gizon alfer eta burutsua.

Hara non, desbiderapenak zuzentzeko *Elezuri* izena neuk emanik bigarrenari, *Lapur zuriak* liburuan plazaratu ondoren euskal argitaletxe batek berriro “Peru gezurtia” izenarekin argitaratzen duen<sup>4</sup>.

Ipuiaren muina Perurena ez baino bestelakoa izanik eta gezurtiaren itzal txarra oso bigarren mailakoa bere ausardiaren ondoan, hankasartze handiegia iduritu zitzaidan eta haserre agertu nion nere kexua arduradunari ikerlanetan ari ginenok aipamen bat eta herri-literaturak bere duintasuna merezi genuela esanez.

(4) J.M. SATRUSTEGI, *Lapur zuriak*, GIE, Donostia, 1981, 155 or.

Errudunak beste gauzatxo batzuen artean, honako hau erantzun zidan

“Duela hiru bat urte, zuk ‘egokitzaile omen den jauna’ deitzen diozun gure lankideari ipuin herrikoi bat aukeratu eta egokitzeko eskatu genion, ‘Txalupa’ Sailean argitaratzeko. Horrelaxe heldu zen gure eskuetara Resurrección María de Azkue Jaunaren *Euskaleñaren Yakintza* (bigarren liburuan *Peru Añazpe* izenburuarekin 275. orrialdean ageri den ipuina, haurrentzat egokiturik. Garbi gera bedi, bada, horixe eta ez besterik izan zela Peru Gezurtiaren iturria. Behar bada, egin genuen pekatu bakarra Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkueren izena ez jartzea izan zen. Eta ahaleginak egingo ditugu hurrengo argitalpenean ipuin hori Markinan jaso zuen apaiz ospetsuaren izena jartzen.”

Egia da Azkuek nolabait nahasten dituela ipui mota biak honako hau dioelarik 1899an *Euskalzale* aldizkarian:

“Irakurburu onegaz Peru ta Maria antxinako ipuin geienak, geienak gatz-bagakoak, egiten zirean. Ipuin au Markinar agura zaar batek geuri esanikoa ta gure irakurla guztien gogokoa izango dala uste dogu”.

Herri-jakintzaren bilketa lanak hasten ziren une hartan nola jakinen zuen ikerlariak eurok jasotako lanen ondoren eta bilduma horiei esker orain egiten dugun bereizketaren berri? Gehiegi ezkatzea izango zen.

Baina, galdera hauxe da: nork nahasi zituen adar desberdin horiek? Herriak? Oso jakingarria da eta kontutan hartzekoa Azkuek berak aitortzen duen hau:

“Con el nombre de *Putifar*, oí este hermoso cuento, aunque algo más breve, hace muchos años, en Urdazuri (AN). Publiqué este cuento el año de 1899 en la revista *Euskalzale*, págs. 13, 23, y 31, con el nombre de *Peru ta Maria*. Muy semejante es el publicado por Mayi Ariztia en *Gure Herria*, año de 1933, pág. 486, con el título *Artoreen ichtorioa*” (*Euskaleñaren Yakintza*, II, 1942, pág. 290).

Garbi ikusten da Azkue bera izan zela gizon argiaren pasaizoak Peru zozoloaren adarrera aldatu zituena. Aipatzen dituen bi iturriek izen propioa ematen diote pertsonaiari.

Hori dela eta urak bideratu nahian, honela hasten da nik argitaratutako lana:

“*Elezuri, alferhaundi* (izena neurea da, noski).



Bazen behin gizon bat esaten ahal den alferrena, baina argia. Ateraldi zorrotzak zituen, baratzea belarrak harturik egongo bazen ere. Laiek ez zuten harekin neke haundirik izaten. Lanarekin haserreturik bizi zen beti<sup>59</sup>.

Harrigarria zera da, ikerlanen ondoren argialetxe batek ehun urteren buruan horrelako hankasartze nabarmen batean inolako erruaren konzientzia txarrik ez sentitzea. Horregatik erantzun nion argitaratzaileari, begiak irekiarazi nahian, honako hau:

“Badakit, noski, Azkuek horrela ipini zuela eta hori da, beste gauza askoren artean, Azkuek jasotakoari aldatu behar izan dioguna, kasu honetan gizon ernea baita pertsonaia, ernerik baldin bada munduan, eta emakumeak ez du berezitasun haundirik. Laguntzaile bakarrik.

Azkuek batzutan halakorik baldin badu ere, jatorra zen eta oharrak uzten ditu. Ezagutzen zituen jatorrizko izenak ematen ditu —*Putifar*, Arttoren ichtoria—; herriak nekez huts egiten zuen orduan herri-jakintzaren oinarritzko punduetan. Eta denbora berean, bere iritzi pertsonala ere azaltzen du: ‘Con este título (de *Peru ta Maria*) se hacía la mayoría de los cuentos antiguos, insípidos los más’ (ipui honi buruz beste hau dio: ‘... oí este hermoso cuento, aunque algo más breve, hace muchos años, en Urdazuri (AN)’.”

Eta oraingo egoera argitzeko eztabaida aproposa izan zenez, honela bukatu nuen argialetxeari emandako erantzuna:

“Baina, itxuraz, gauzak hobetu beharrean kakaztatzen joatea hobe izango da, norbaiten ustez, eta Peru gizajo baten izenari *Gezurtia* itsasi zaio. Gezurra ote da, beraz, ipui honen oinarritzko funts, ardatz eta edukin nagusia? Gezurraren eredia ematen al zaio haurrari ikasgai?

Urte asko daramat gai hauetaz arduratzen eta ez dut inon eta inoiz herri-jakintzan horrelakorik entzun. Besterik da norbait nahi duelarik *bere* ipuia sortu. Non gelditzen da orduan alporja batek legegizon ikasien argudio guziak zapaltzen dituen ondorio soziala? Eta non alferrak bere ofiziotik bizitzeko behar duen izpiritu erne eta argia?

Mesedez, seriotasun piska bat. Behar-beharrezkoa ikusten dut salaketa zabal eta ganorazko bat egitea. Neu prest nago egoera zertan dagoen esateko.”

(5) LUIS ERRAZKIN, *Ipuin herrikoia*, ELKAR, Donostia, 1983.

Badakit dirua jokuan dagoen lekuan ikerlariak ez duela ezer egitekorik, baina galtzaile nagusia, azken finean, herri-ondarea bera da. Gaurregun herri-jakintza zientzia prestijiatuen mailan ikertzen da herri aurreratueta eta ohore handiz zaindu ohi dute maisuek. Konparaketa lana ere gero eta gehiago indartzen doan zientzia da herrien arteko ezagutzan. Nora joan daiteke Euskal Herria irabazi zikin batzuen zurrumurruan geure altxorren lekukotasuna hautsi eta apurtuz?

Sintesia da bilketa lanari falta zaion urrats berria, eta komenigarria izango da horri buruz egindako saioen berri ematea, besterik ez bada, informazio mailan eta eztabaidagai. Atal hau izango da noski gure artean gehigarri berritsuena.

## Metodologia

Aipatutako ipuiaren eztabaidan, hain zuzen, bi ikuspegi desberdinen arazoa dago. Peru pertsonaiaren izena hartu zuen argitaletxeak, besterik gabe, gizon zozoaren multzoan nahasteko baserritar argia. Kondakizunaren edukin borobildua hor zegoen, bestalde, Peru eta Mariaren zerzelada arruntekin ezer ikustekorik ez duela ikusteko. Pentsatzekoa zen norbaitek gaizki emandako izena dela.

Ikerlanerako lehen ondore oinarrizkoa, zera da, *ipuietan pertsonaiaren itxurak ez baino, bere portaerak erabakitzen duela esandakoaren funtsa edo ardatza, zein multzotakoa den jakiteko*. Ariaren haritik egina da harila.

Sintesia deitzen zaion aniztasunaren batasuna, antzekoen laburpen trinkoa da.

Gerta daiteke, adibidez, pertsonaia berari maila desberdinetako ekin-tzak leporatzea.

Jentilen eredia kontutan hartzen badugu, elezahar edo leyenda alo-reko pertsonaiaren ezaugarri nagusiak hauek izango lirateke: 1. Jende handia eta indartsua; 2. Tolesgabe eta zineza; 3. Baketsua, eta 4. Gizajosamarra. Pertsonaren nortasun-ertza endaren azken egunekin galtzen da.

Ardatzaren adar horietako bakoitzak baditu bere adierazpen zehatzak, eta azken jentilari dagokionez, urdiandarrek jaso omen zuten eta herrian zaindu. Hil aurrean Kristoren etorrera iragarri omen zuen.

Honela kondatzen dute berek:

“Sarabeko haitzien bizitzen zian jentilak. Txuma luziek omen zituzten eta gorputz guzia ilez beteik. Oso haundiak zian eta andrak e(re) bai.

Azkeneako jentil bat geatu eta herriá jaitsi zuten. Labendaia-kin <sup>6</sup> ematen zioten jateá. Erdi-itsutuik zegoen eta burnizko barraikin jaso zioten betazala. Jende txikia ikustean, hitz hauek esan omen zituen:

*Badiyua jende humanua  
heldu da jende txiki perrua!*

Hil zanien, jentilen lur guztiak Urdiaingo herriaindako izan omen ziran.”

Esames honek badu aldaska nabar bat. Apustua egin omen zuen jentilak gizonarekin, zeinek gehiago jan.

“Jende txikia fan zan narruba jantzita eta gainetik arropa. Jaten hasi zian eta txiki horrek naiko jan z(u)enien botatzen z(u)en (jatekoa) narruá, ta bestia jan ta jan... Gero hasi zan txikiói mugitzen da ezin zan mugitu zukan pisubekin. Hartu zuen labana, ebagi zuen tripia eta haik guziak kanpuá atazian.

Jentila harriturik raso sobré:

- Baia tripia zabalduok eta bizik ago?
- Eztok ikusten ba?

Harek e zabaldu ta... Aaaii!

*Sortuok jende txiki perrua  
akabatuok jende humanua”.*

(Luisa Goikoetxea. Urdiain)

Aldaska nabarra dela esan dut lehen. Odolgiroko heriotzeak ez dauka ezer ikustekorik jentilen munduarekin. Eranskina da eta arrotza. Txertoak gainera arazo bi sortzen ditu: jatorriarena eta esanahi edo intenzioarena.

Labankada faltsuaren tokia ipui arruntetan dago. Adibidez, denda batean ohostu nahi zuen soldaduak, arropa azpian zeraman ardoz betetako zahakoari labana sartu zion, tximu dendariari bere burua hilarazteko.

Urdiaingo berriemailearen hitzetan, halere, ez da jentila ipui arrunten mailara erakartzen; alderantziz, mitoen zeru-sapairako bidean doa. Hain zuzen ere, indardunen borrokan erabili ohi diren apustuko hiru froga aipatzen dira: *indarrarena*, eta gizon txikiak eskuetan apurtzen du gazta freskoa, harria dela esanez. *Balanka jaurtiketarena*, Sakanatik Urbasa mendira bota eta ardiren bat hil dezakeela esanez, eta *jatekoena*.

Horrek esan nahi du, jentilen kondakizunak, elezaharren, ipui miresgarrien eta mitogaien soka luzean dantzan dabiltzala. Indardunen mitogai

(6) *Labendai*, pala de horno.

na barmena da, noski, jentilena eta mito mailan kokatzen hasia. Esanguratsua da azken egunotan ikasi eta orain lehenengoz esaten dudana pasadizo zoragarri hau:

“Sakana (bailara) iten emen zailtzan (jentilak). Sakan hau iten ta, harri asko, eta harri hoiek ezin kenduik. Eta harriyoiek kentzen ari ziala, ebeik bezela emen zukatzain idi haundiyek, bai ezin tiratuik.

Jentilain alabak ikusi emen z(u)en amurraziyuekin, eta hartu emen z(u)en besape bat (harri) ta pātu emen z(u)en hor haitz hortan, goien, baia bazeala bat eskapatu emen zaion, harri bat: hura da *Odolkiko harriya*.

Baia sobré ba emen zoon sorginen bat Ameskoa hortan, eta ameskuar hura oso enfaatuik ikustien hor pātu z(u)en haitza, kole(r)arekin, bee amurraziyuekin, Irurtzango ‘Dos Hermanak’ in emen zituben harrek” (Luisa Goikoetxea. Urdiain, 1992-I-7)

Arazorik korapilatsuen, eta behar-beharrezkoa, sail desberdinen ertzak mugatzea da. Jentilen esparrua ez da errazena, noski. Elezahar edo “leyenda” modukoak dira, alde batetik; ipui miresgarrien hegada handietan mugitzen dira, eta mito kutsurik ere ez zaie falta.

Bere zailtasun eta guzti azterketaren oinarri hartu baditut arrazoi askorengatik da: 1) Materiale baliotsua daukagulako. 2) Sinesteak bizirik dirauelako, eta 3) bere mugikortasunean aldaeren nabardurak herriak berak azpimarratzen dituelako.

Aurreko kondakizunak eman dizkidan emakumeak dio, azken Jentil hura bere sortetxean zaindu zutela, eta herriko zaharrek hori bera aitortzen dute. Jentilak, beraz, ez dira ipuien mailako asmaketak. Baina, denbora berean, Odolkiko haitzaren eta “Dos Hermanak” aipatzen dituen elezaharra bukatzean, honako komentario hau egiten du berak: “kontu zaharrak zein politikak ziren!”.

Berriemailearentzat, beraz, jentilen gauza izan arren, beste zerbait da. Ez da berdin haragi bizian lan egitea eta hezur soilen moduko datu ihartuen bidez ondoreak ateratzea. Eremu gutxi gelditzen zaizkigu tradizioen mundu bizian lan egiteko.

Ikerlariaren aldetik, ipui miresgarrien eta mitoen bitarteko hesia non dagoen bilatzea da helburu hurrena. Hau da hitzaldi honen azken pundua, eta aportazio nagusia bere zalantza eta guzti.

Mitologaiaren eremua, hasteko, zabala da herri-narratiban. Garai bateko jainko eta jainkosen berriekin batera, ingurumenaren sorrerari dagozkion sinesteak, gizonaren kezka sakonei erantzuteko asmaketak eta lan-

gintzako aurrerapen garrantzitsuen aipamena ere barne daude, antzinateko ikuspegi miresgarriz apaindurik.

Euskal Herriko mitologia berez sortu, eta landu gabe gelditutako landareen sastraka bada ere klasikoen lur landuetako lorategien aldean, lore bitxi eta emaitza izkaturik badago bertan.

Adibide argi eta hitz xumetan esan ohi ditu herriak gizonaren amets handienak. Honela ikusten du euskaldunak noizbait izandako mundu zoriontsuaren galera:

“Garai batean animaliak ongi konpontzen omen ziren euren artean. Bakea zen nagusi munduan.

Egun batean kakamarroa zapaldu omen zuen zangoarekin mandoak. Animalia txikiak haserretu egin ziren eta bilera bat egin zuten handien erasoei erantzuteko.

Handiek azeria bidali zuten zer gertatzen zen ikustera eta harro agertu zen besteen aurrean.

Orduan erle samalda joan zen hodei bat bezala azeriaren gainera eta hozkadaz josi zuten ia hiltzeraino.

Ahal zuen bezala itzuli zenean lagunetara, minaren-minez, honako hau esan zien bakarrik azeriak:

– Txikiak dira baina hozkada mina dute. Utz ditzagun bakean”.

Hizkuntzaren aldetik itxura oso desberdinean datozkigu euskal mitoak. Esaera labur eta hitz ihartuetan dago batzuetan mezu sakona, munduaren sorrerako uren banaketa bezala: *Ur goiena, ur barrena, Urteberri egun ona*.

Badaude, alderantziz, kondakizun bizi eta eraginkorrak ere, iragan denborarekin muzindu ez baino eraberrituz itxura aldatzen joan direnak.

Desberdintasun nabarmen horren atzetik zergatiaren bila emandako urratsek, mitogaien iturburutara hurbildu naute. Lehen kasuan, *munduaren sorrera* eta antzeko *kosmogonigaien* indar izkutuek sortutako jakin-mina kanpotik datorkio gizonari: han nonbait galdutako izartegi batetik. Arrazoizko ikuspegi berriak sortutako zientzia eta teknikak indargabetu eta baztertu egin du aurreko pentsaera eta ohituren herri-jakintza, eta galdu ez diren formak euren trinkotasun ihartuan ulergaitzak dira herriarentzat, Olentzero, Zarpantzar eta Miel Otxin bezala.

Bigarren multzoan, gizonaren *barne-gogo* eta *amets bete-ezinak* dira indar eragileak eta norberarekiko ahalmen izkutuak betetzen dira mitoetan.

Hautentzat ere aldatu zen, noski, antzinateko pentsabide hura eta sineste zaharren ikuspegia, baina giza-joeren berezko irrika —instintoa— ez da aldatu eta gizona-gizon den bitartean iraungo du.

Berezko irrika honek badu hurruneke haien itxurak ez bezalako bizitasuna, eta aldian-aldiko beharren arabera antzaldatur berritzen da. Pertsonaien nortasunak ez du ajolarik, animaliak izan ala Tartaloa, moroak ala jentilak. Indardunen aurka gizon txikia garaile ateratzeko bideren bat beti sortuko da.

Mitoea giza-pentsaeraren nahiz amets nagusien goren mailako sapaian mugitzen da, gaurko filosofia eta zientziaren aulkia bereganatuz. Sinbologiaren eskutik doa eguneroko gauza arrunten gaintik daudenetara daraman bidean.

*Jakintza metafisikoa, natura ingurumeneko gertakizunak eta gizonaren barne-gogo betikoak argitzeko erabili diren esames zaharrak dira mitoak.*

Herri-narratibaren gailurra den mitoea benetan mito den ezagutzeko, literatur-apaingarrien jantziez biluzi, pertsonaien izenak ahaztu eta helburuen sustrai gordina behar da ikusi. Eguneroko lan arrunten zama gainditu eta goragokoen arnasa astingarria du pizten; jainko-jainkosen zeruan sartu eta gizonaren gura izkutuenak hezur-mamitzen ditu. Baina ez da amets hutsa: ameslariaren bizia baldintzatzen du eta bultzatzen. Mitoea izan zen antzinateko erlijioen hegalkada gorena.

A dibidez, ipui miresgarria dirudien Urbasa mendiko hartzaren zertzelada xumea, arotzak matxarda goriarekin erre baitzion muturra eta garaitu, Tartalo beldurgarriaren antzeko gaia da indardunen aurkako gizonaren borrokan.

Alderantziz gerta daiteke, jainkoa eta naturaren gain egindako balorapenak ipuin arrunten mailako zirtada arruntak izatea. Euskal ipuin, zaharretan esaten da, Jainkoari hiru gauza atera zitzaizkiola gaizki: egunaren argiko ilargia, itsasoan euria eta gizonen ditiak.

Herri-narratibaren Jardunaldi hauetan bide-urratze bat egin nahi du Euskaltzaindiak zer dugun eta non koka ikasten joateko.

Besterik gabe txanda ematen diot hurrengo hizlariari.

### **Narrativa popular vasca (Resumen)**

La cultura de tradición oral vasca que, a partir del siglo XIX ha tenido buenos recopiladores, dispone de abundante material que interesa ordenar y clasificar, como punto de partida para abordar el tratamiento científico de síntesis.

El concepto de narrativa popular se entiende aquí en el sentido amplio de la palabra, como conjunto de relatos de tradición oral recopilados por los etnógrafos y folcloristas vascos. No entra, por supuesto, la poética popular de baladas, romances, cantares y otros testimonios versificados.

Partiendo de las comunicaciones de experiencias más inmediatas, como pueden ser los relatos personales y de oficio, en Etnografía, se señalan los siguientes apartados: fábulas, refranes glosados, cuentos, creencias, tradiciones, leyendas y mitos.

Esta primera ponencia centra la atención en la difícil frontera entre el cuento maravilloso y el mito, ya que la esquemática y, en ocasiones, fosilizada formulación lingüística de importantes conceptos en los estratos más antiguos, complica la identificación de los mismos.

Más allá del Olimpo de los dioses y héroes clásicos, incluimos también en la categoría de mitos, los sucesos cosmogónicos de los orígenes, la exaltación subliminal de determinados valores del hombre, como el valor y la fuerza liberadora de seres sobrehumanos, así como la versión sacralizada de los descubrimientos relevantes por mediación de un modesto Prometeo autóctono.

## **Metodología**

Se propone la desmitologización del mito o despojo sistemático del ropaje literario para definir su estructura.

Los elementos básicos de identificación se reducirían a la referencia arquetípica que inspira el relato y/o la intervención de un factor trascendente o la acción de elementos ligados a él.

Hay mitos que se expresan en frases lapidarias y términos fosilizados; en tanto que otros relatos son prolijos y presentan numerosas formulaciones de distinto signo: protagonismo de animales, monstruos, genios equiparables a Polifemo, gigantes, gentiles, etc.

La dinámica de cada proceso mítico ha podido influir en el resultado divergente que observamos. Proponemos como hipótesis de trabajo, distinguir la iniciativa o interés externo, como los sucesos cosmogónicos, que inspiran el mito por una parte; y la motivación personal, como el triunfo del hombre sobre seres sobrehumanos, que actúa desde dentro, por otra.

El paso de la mentalidad prelógica al mundo de la razón trivializó el papel del mito con resultado de desafección y pérdida de contenido que esterilizó los términos de inspiración cósmica.

La motivación de los mitos de proyección antropológica es instintiva y no se paraliza, sino que sigue actuando a través del inconsciente y se adapta al signo cambiante de la cultura y de los tiempos. Produce riqueza de signos y de manifestaciones.

En síntesis, el reto del oso de Urbasa derrotado por las tenazas rusientes del herrero, no desmerece de Tártalo o Polifemo vasco derrotado por el muchacho que le vació el ojo a fuego, y de otros relatos que resaltan la victoria del ingenio humano sobre la fuerza bruta.